

ESKULANGINTZA SARIKETA
**BLAS ARRATIBEL**
CERTAMEN DE ARTESANIA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

2012ko

# BLAS ARRATIBEL

## ARTISAUTZA SARIKETAREN OINARRIAK



## BASES DEL CERTAMEN DE ARTESANÍA

# BLAS ARRATIBEL

2012

## OBJETO DEL CERTAMEN

El presente certamen tiene por objeto estimular e impulsar la actividad del sector artesano.

## ÁMBITO Y PARTICIPANTES

El certamen tiene como destinatarias exclusivas las personas empadronadas en las Comunidades Autónomas del País Vasco, Navarra y Condado de Treviño.

## MODALIDADES

El certamen contemplará tres modalidades, correspondiendo un premio a cada una de ellas:

a) **Premio destinado a la artesanía tradicional.** Para las piezas que reproduzcan formas clásicas conocidas, con la utilización y aplicación de materiales y técnicas históricamente empleadas.

b) **Premio destinado a la artesanía de nueva creación.** Para las piezas que, respetando los procedimientos o procesos de producción empleados en la artesanía tradicional, obtengan a partir de la utilización de nuevos, similares o iguales materiales, resultados estéticamente distintos a los tradicionales.

c) **Premio especial.** A esta modalidad sólo podrán presentarse piezas realizadas por personas empadronadas en el Territorio Histórico de Álava y Condado de Treviño, que aun no estando registradas como artesanas, observen en su forma de hacer los procedimientos empleados en la producción de artesanía. A este premio, que es único, pueden presentarse piezas tradicionales o de nueva creación.

## REQUISITOS Y DOCUMENTACIÓN

### 1. Para las modalidades a) y b)

Estas dos modalidades están reservadas a las personas que tengan reconocida la condición de artesanas por la institución correspondiente.

Deberá presentarse, además de la pieza, un sobre cerrado en cuyo interior se incluirán los siguientes datos:

Nombre y apellidos de la persona autora de la misma, dirección y teléfono, fotocopia del DNI, cédula de empadronamiento y certificado, expedido por la Institución competente, que acredite su condición de artesano/a, obtenida ésta con anterioridad a la fecha de publicación de la presente convocatoria en el BOTHA. Se excepcionan del cumplimiento de este requisito las personas registradas en el Registro de la Artesanía de Álava, para las cuales, en su caso, se realizará esta comprobación de oficio.

En el exterior del sobre citado, deberá consignarse un título o lema identificatorio que se corresponderá con otro igual que deberá figurar en el exterior de la pieza presentada, así como a cuál de las dos modalidades, a) ó b), se presenta.

### 2. Para la modalidad c)

Esta modalidad está reservada a las personas empadronadas en el Territorio Histórico de Álava y Condado de Treviño, que no hayan obtenido aún la condición de artesano/a, pero que respeten en su forma de hacer los requisitos que la normativa del Territorio Histórico de Álava exige para que una pieza pueda ser considerada artesana.

Las personas participantes deberán presentar, además de la pieza, un sobre cerrado en cuyo interior se incluirá una hoja en la que consten el nombre y apellidos de la persona autora de la misma, dirección y teléfono, fotocopia del DNI y cédula de empadronamiento, de fecha igual o anterior a la de la publicación de esta convocatoria en el BOTHA.

En el exterior del sobre citado deberá consignarse un título o lema identificatorio que se corresponderá con otro igual que deberá figurar en el exterior de la pieza presentada, indicando además, en el exterior del sobre, que se presenta a la modalidad c).

En ningún caso podrán ser premiadas en esta modalidad aquellas personas que tengan reconocida la condición de artesana.

## NORMAS GENERALES

Se admitirá la presentación por participante de una pieza o conjunto de piezas, si la obra lo requiere, en cada una de las modalidades.

En ningún caso podrán ser acreedoras de un premio en las modalidades de artesanía tradicional y de nueva creación aquellas personas que no acrediten su condición de artesanas, situación ésta que deberán tener reconocida por la Institución correspondiente, con anterioridad a la fecha de publicación de la presente convocatoria en el BOTHA.

Las piezas presentadas a cualquiera de las modalidades indicadas no deberán contener ningún elemento que permita identificar su autoría. El incumplimiento de este requisito conllevará la exclusión de la pieza del Certamen.

Quedan expresamente excluidas de este certamen las maquetas.

## DOTACIÓN

Los premios de las modalidades a) y b) estarán dotados con 1.550 euros cada uno, y con 1.220 euros el correspondiente a la modalidad c).

La partida presupuestaria que ampara este gasto es la 70.1.05.72.05.223.09.02.6 del Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Álava para 2012.

## PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN

Las obras deberán presentarse los días 20, 21 y 22 de noviembre de 2012, en horario de 10:00 a 13:00 horas, en las dependencias del Museo BIBAT, calle Cuchillería, 54, de Vitoria-Gasteiz.

## DECISIÓN DEL JURADO

El Jurado, designado al efecto por la Diputada Foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, hará público su fallo en el plazo de diez días contados a partir del siguiente a la finalización de la presentación de obras, a través de los medios de comunicación.

A estimación del jurado los premios podrán declararse desiertos.

## EXPOSICIÓN

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte se reserva la facultad de exponer las obras presentadas al Certamen.

## PROPIEDAD DE LOS TRABAJOS

Los trabajos premiados, a excepción de la pieza correspondiente al premio especial, pasarán a ser propiedad de la Diputación Foral de Álava, sin que por tal motivo el/la autor/a tenga derecho a percibir ninguna otra cantidad complementaria a la estipulada como premio.

## INCIDENCIAS

La Diputación Foral de Álava podrá resolver sin ulterior recurso las incidencias que se produzcan en la tramitación de la presente convocatoria, no haciéndose responsable del deterioro que pudieran sufrir las piezas presentadas por los concursantes.

## DEVOLUCIÓN DE LAS OBRAS

Las obras no premiadas y la premiada con el Premio Especial deberán ser retiradas los días 8, 9 y 10 de enero de 2013, ambos inclusive, en horario de 10:00 a 13:00 horas, en las mismas dependencias donde fueron entregadas.

Transcurrido el citado plazo, las piezas no retiradas quedarán a la libre disposición de esta Diputación Foral.

## RECURSOS

La presente convocatoria y cuantos actos administrativos se deriven de ella, podrán ser impugnados en los casos y en la forma establecidos por la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

## LEHIAKETAREN HELBURUA

Honako lehiaketa honek artisautza alorreko jarduerak sustatzea eta bultzatzea du helburu.

## APLIKAZIO EREMUA ETA PARTE HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Trebiñuko Konderrian erroldatuta daudenek soilik hartu ahal izango dute parte lehiaketan.

## MODALITATEAK

Lehiaketak hiru modalitate ditu, eta modalitate bakoitzari sari bat esleituko zaio:

a) **Artisautza tradizionalari eskainitako saria.** Historikoki erabili diren materialak eta teknikak erabiliz forma klasiko ezagunak kopiatzen dituzten lanetarako.

b) **Artisautza berriari eskainitako saria.** Lanak egiterakoan artisautza tradizionalean erabilitako ekoizpen prozedura eta prozesuak errespetatu arren, itxura tradizionalik izaten ez dutenentzat, material berriak, antzekoak edo berdinak erabilita.

c) **Sari berezia.** Modalitate honetara Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian erroldatutako pertsonek egindako lanak baino ez dira aurkeztuko. Pertsona horiek, artisau gisa erregistratuta egon ez arren, artisautzan erabiltzen diren prozedurak erabili beharko dituzte. Sari hau (bat baino ez) lortzeko lan tradizionalak zein artisautza berrikoak aurkez daitezke.

## BETEBEHARRAK ETA DOKUMENTAZIOA

### 1. a) eta b) modalitateak

Bi modalitate horiek eskumena duen erakundeak emandako artisau aitorpena duten pertsonentzat bakarrik dira.

Lanaz gainera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da gutun azal itxi batean: Egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa, NANaren fotokopia, erroldatze agiria eta artisaua dela adierazten duen egiaztagiria, horretarako eskumena duen erakundeak emana. Parte hartzaileak artisau aitorpena deialdi hau ALHAOn argitara ematen den eguna baino lehenago lortu behar du. Arabako Artisautza Erregistroan izena emanda dutenek ez dute azkeneko agiri hori aurkeztu beharrik izango, egiaztapena ofizioz egingo baitzaie.

Gutun azalaren kanpoko aldean izenburu bat edo identifikatzeko moduko lema jarri behar da. Lema hori lanaren kanpoko aldean agertu behar den baten berdina izango da. Baita lana a) edo b) modalitatera aurkezten den adierazi behar da ere.

### 2. c) modalitatea

Modalitate honetan parte hartu ahal izateko, Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Konderrian erroldatuta egon beharko dute parte hartzaileek eta, gainera, ez dute eduki behar artisau aitorpenik. Hala ere, Arabako Lurralde Historikoaren arautegiak lan bat artisaua izateko eskatzen dituen baldintzak errespetatu beharko dituzte egileek, lanak egiterakoan.

Parte hartzaileek, lanaz gainera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute gutun azal itxi batean: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa, NANaren fotokopia, eta erroldatze agiria, deialdi hau ALHAOn argitara ematen den egun berekoa edo lehenagokoa.

Gutun azalaren kanpoko aldean izenburu bat edo identifikatzeko moduko lema jarri behar da. Lema hori lanaren kanpoko aldean agertu behar den baten berdina izango da. Horrez gainera, c) modalitatera aurkezten direla adierazi behar dute gutun azalaren kanpoko aldean.

Modalitate honetan inola ere ezin izango dira saritu artisau direla aitortuta duten pertsonak.

## ARAU OROKORRAK

Parte hartzaile bakoitzak lan edo lan multzo bat aurkeztu ahal izango du, modalitate bakoitzean.

Artisauak direla egiaztatzen ez dutenek ezin izango dute saririk irabazi artisautza tradizionalaren eta artisautza berriaren modalitateetan. Eskumena duen erakundeak eman beharko die artisau aitorpena, deialdi hau ALHAOn argitara ematen den eguna baino lehenago.

Edozein modalitatetan aurkeztutako lanek ezin izango dute eduki egilea identifikatzeko bide ematen duen inolako elementurik. Baldintza hori betetzen ez bada, lana lehiaketatik kanpo geratuko da.

Maketak lehiaketa honetatik kanpo geratzen dira.

## ZUZKIDURA

a) eta b) modalitateetako sariak 1.550 eurokoak izango dira bakoitza, c) modalitatekoa, berriz, 1.220 eurokoa.

Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2012ko gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.05.72.05.223.09.02.6.

## AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Lanak 2012ko azaroaren 20, 21 eta 22an aurkeztu beharko dira, 10:00etatik 13:00etara, BIBAT museoaren bulegoetan (Aiztogile kalea, 54. Gasteiz).

## EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak izendatuko du epaimahaia, eta hark lanak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik kontatzen hasita hamar eguneko epean ezagutaraziko du bere epaia komunikabideen bidez.

Saria eman gabe geldi daiteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

## ERAKUSKETA

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eskumena izango du lehiaketara aurkeztutako lanak jendaurrean erakusteko.

## LANEN JABETZA

Saritutako lanak, sari berezia jaso duena kenduta, Arabako Foru Aldundiarenak izango dira. Egileak ez du izango saria ez den inolako kopuru osagarririk jasotzeko eskubiderik.

## GORABEHERAK

Arabako Foru Aldundiak deialdi hau izapidetzerakoan egon daitezkeen gorabeherak ebatzi ahal izango ditu, eta ezin izango zaio errekurtsorik jarri. Gainera, ez da izango parte hartzaileek aurkeztutako lanak hondatu izanaren erantzule, hori gertatuz gero.

## LANAK ITZULTZEA

Saririk jaso ez duten lanak eta sari berezia jaso duena 2013ko urtarrilaren 8, 9 eta 10ean jaso beharko dira aurkeztu ziren lekuan, 10:00etatik 13:00etara bitartean.

Epe hori igarota, jaso ez diren lanak foru aldundi honen esku geratuko dira.

## ERREKURTSOAK

Honako deialdi honen aurka zein haren ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta bertan jasotzen den eran.